

HOSTOEKIN EGINDAKO ANIMALIAK

Kaixo familiak:

Udaberrian gaudenez eta zuhaitzak tamaina eta forma ezberdinetako hostoekin beteta daudenez, jarduera berezi bat proposatu nahi dizuegu.

Zer landu dezakegu proposamen honekin?

- Jolaserako eta sormenerako esperientzia berriak.
- Ingurunearen ezagutza eta honekiko errespetua.


Beharrezkoa den materiala eta jarraitu behar ditugun pausuak:


Zuhaitzetatik tamaina eta forma ezberdinetako hostoak hartuko ditugu: handiak, txikiak, luzeak, borobilak.. (garrantzitsua da zuhaitz ezberdinetatik hostoak hartzea, zuhaitza hazten jarraitzeko eta hau ez kaltetzeko).

Eta bildutako hosto hauek egunkari batean edo liburu batean gordetuko ditugu hurrengo eguna arte. Modu honetan, hostoak lauak izatea lortuko dugu.

Bukatzeko, hostoak hartuko ditugu eta animalia ezberdinak sortuko ditugu.

Jarraian, adibide moduan irudi batzuk dituzue.





Bildutako hostoak hurrengoak dira:



Eta bildutako hostoekin hurrengo animaliak sortu ditugu. Izan ere, animaliak sortzeko irudimena besterik ez da behar.

Zein animalia da?



Gustuko izatea espero dugu. Ongi izan.